

“DIGITAL DEND@K”: DSS2022 EKONOMIA BULTZATZEKO PLANAREN ESPARRUAN, TOKIKO MERKATARITZAN IRTENBIDE TEKNOLOGIKOAK ETA DIGITALAK EZARTZEKO DIRULAGUNTZEN PROGRAMA ARAUTZEKO OINARRIAK

SARRERA

Donostiako Sustapena SAK (aurrerantzean, Sustapena edo Donostiako Sustapena), Donostiako Udalean garapen ekonomikoaz arduratzen den sozietateak, besteak beste, **hiriaren garapen ekonomikoa eta soziala** bultzatzea du helburu, batez ere **kohesio** eta **jasangarritasun** irizpideak betez; horretarako, hiriko hainbat eragileren arteko **adostasuna** eta **lankidetz**a sustatu nahi du, gure hiria eraldatzeko eredutzat hartutako **berrikuntzaren** alde apustu argia eginda.

2011tik, Donostiako Sustapenak eta Donostiako Udalak estrategia hori urtean zehar ezartzeko tresna daukate eskura: **Ekonomia Bultzatzeko Plana**.

Tresna horrek, goranzko bilakaerari eta ezarritako helburuak betetzeari esker dagoeneko finkatuak, ahalbidetu du hiriko gizarte eta ekonomia alorreko hainbat erronkari aurre egitea, tokiko mailan, baita maila globalean ere, azken 10 urteetan, hiriaren lehiakortasuna eta posizionamendua hobetuz.

Pandemiaren intzidentzia handiaren ondorioz zaila zen 2021. urtea emaitza onekin gaindituta, Donostiako Sustapenak tokiko Ekonomia Bultzatzeko Plan berri bat proposatzen du 2022rako.

2022. urterako plan berriak aurrera egiteko eta etorkizunari aurre emateko bide berri bat hastea proposatzen du; horretarako, sustatuko dira **pertsonengan** zentratutako ekintzak, **proiektu berritzaileen** garapena eta sareko lana, tokiko ekosisteman **garrantzitsuenak** diren eta proiektu horiek, talentua eta **hiriaren** garapena sustatzen lagun dezaketen **eragileekin**.

Marko horretan, 2021eko Planaren inpaktua aztertuta eta tokiko eragile sozioekonomikoekin batera hiriaren erronkak zehaztuta, bai tokikoak, baita globalak ere, nazioarteko mailan daukagun egoerak bultzatzen dituen erronkak integratuz, Donostiako Sustapenak Ekonomia Bultzatzeko 2022ko Plana proposatzen du, honako helburu hauek lortu nahi dituen:

- **Donostia hiri kohesioduna** izatea, lan aukera berriak sortzen dituen, arreta berezia zailtasun handienak dituzten kolektiboengan jarrita.
- **Donostia hiri ekintzailea** izatea, tokiko lehiakortasuna areagotzen duten enpresa proiektuak bultzatzen dituen.
- **Donostia zerbitzuen hiria** izatea, kalitatezko merkataritza sare berritzailearen alde apustu egiten duena.
- **Donostia zientzian eta berrikuntzan** oinarritutako garapen ekonomikoaren eredua izatea.
- **Donostia Hiri Eraldaketako** prozesu berritzaileak probatzeko hiri laborategia izatea.

5 ardatz horien bidez, Donostiako Sustapenak jarraituko du hiria lehiakorrago eta berritzaileago bihurtzen; aldi berean, hiri sozialagoa, irekiagoa eta kohesionatuagoa izatea

lortu nahi du, gazteen alde, berdintasunaren alde eta auzoen arteko kohesio sozialaren alde egiten duen eredia bultzatzeaz gain.

Ez da ahaztu behar Donostiako merkataritza lan horren guztiaren zatia dela: gure tokiko ekonomian garrantzi produktiboa izan duen eta izaten jarraitzen duen sektore ekonomiko tradizionala; sektore hori, gizartean azken urteotan gertatzen ari den eraldaketa ekonomikoaren, sozialaren eta sanitarioaren ondorioz, negozioa eraldatzeko prozesu etengabearen murgilduta dago.

Azken urteotan, Sustapenak sektorearen eskura jarri du saltokien lehiakortasuna hobetzeko dirulaguntzen programa bat, tokiko merkataritzan tresna digitalak ezartzen lagundu behar duena. Ia 800.000,00 €-ko inbertsioarekin, 600 baino gehiago dira dirulaguntza horien onuradun izan diren merkataritzako enpresak; izan ere, laguntza horiei esker, online saltzeko bide berriak ireki dituzte, nazioarteko merkatuan posizionatu dira, beren negozioen kudeaketa digitalizatu dute eta kanal anitzeko komunikazioa eta posizionamendua garatu dituzte.

Aurreko guztia dela eta, Donostiako Sustapenak abian jartzen du saltokietan irtenbide teknologikoak ezartzeko dirulaguntzen deialdi berria; hain zuzen, “Digital dendak” dirulaguntzak dira, merkataritzaren eraldaketa digitala bultzatzeko irtenbide eta tresna digitalerako inbertsioak eta gastuak laguntzeko, bai negozioaren kudeaketa (bezeroak, hornitzaileak eta abar) hobetzeko prozesuetan zein marketin digitaleko estrategietan egiten direnak, honako hauek lortzeko: posizionamendua; bezeroak fidelizatzea; bezeroen online/offline esperientzia hobetzea; negozioaren inguruko erabaki estrategikoak hartzeko datuen azterketarako sistemak; Internet bidez saltzeko bide berriak; beren jarduera ekonomikoa eta enplegua mantentzea ahalbidetzen duen beste edozein.

XEDAPENAK

1. ARTIKULUA. DIRULAGUNTZAREN XEDEA

Dirulaguntzaren xedea hiriko merkataritza arloan diharduten eta eraldaketa digitala sustatu eta beren lehiakortasuna hobetu nahi duten enpresek eta autonomoek irtenbide eta tresna digitalak ezartzeko egiten dituzten inbertsioak eta gastuak laguntzea da.

Dirulaguntzat hartuko da funts publikoak kontraprestaziorik gabe zuzenean ematea, Oinarri hauen 5. artikulua araberaren diruz lagun daitezkeen inbertsio eta gastuak egiteko.

2. ARTIKULUA. BALIABIDE EKONOMIKOAK

Donostiako Sustapena SAK dirulaguntza horietarako bideratu dituen funts publikoen zenbatekoa EHUN ETA BERROGEITA HAMAR MILA EURO (150.000 €) da.

Donostiako Sustapenak beretzat gordetzen du dirulaguntza horietara bideratutako zenbatekoa aldatzeko (handitu edo murrizteko) eskubidea.

3. ARTIKULUA. ONURADUNAK

Pertsona onuraduna izango da dirulaguntza jaso zuen jarduera egin behar duena edo dirulaguntza ematea legitimatzen duen egoeran dagoena, baldin eta Oinarri hauetan jasotako baldintza guztiak betetzen baditu eta, batez ere, laguntza mota bakoitzari dagozkionak.

Dirulaguntzen onuradun izan daitezke: pertsona fisiko edo juridikoak, publiko zein pribatuak, estatukoak edo atzerrikoak, baita ordenamendu juridikoari jarraikiz behar bezala eratutakoak ere, Oinarri hauetan finkatutako baldintzak betetzen badituzte. Kanpo geratzen dira ondare sozietateak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 14. artikuluan zehaztutakoak.

Oinarri hauetan, dagozkion laguntzak eskatzeko bete behar diren baldintzak eta haiek egiaztatzeko moduak zehaztuko dira; izan ere, kasu guztietan Dirulaguntzen Lege Orokorraren 13. artikuluan aurreikusitakoa bete beharko da. Ondorio horietarako, aipatu legea aplikatu behar dela esanbidez adierazten da.

Laguntza ezin izango zaie pertsona fisiko edo juridikoei eman honako kasu hauetan:

- a) Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga betebeharrak eta/edo Gizarte Segurantzarekikoak betetzen ez badituzte.
- b) Ebazpen irmo baten bidez dirulaguntza eta/edo laguntza publikoak jaso ahal izateko aukera galtzea dakarren zigorra ezarri bazaie, edota horretarako ezgaitzen duen lege debekua badute, sexuan oinarritutako diskriminazioagatik ezarritakoak barne, Emakume eta Gizonen arteko berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetako seigarrenean xedatutakoaren arabera.
- c) Donostiako Udalarekin eta/edo Donostiako Sustapenarekin zorrak badituzte.
- d) Lehenago eman zaizkien dirulaguntzak edo horien zati bat oraindik itzuli ez badute, dagokion zenbatekoa itzuli dela egiaztatzen ez den bitartean.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, interesdunek eskubidea dute administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administraziok egin dituen agiriak ez aurkezteko. Gainera, administrazio jarduleak dokumentu horiek kontsultatu edo eskatu ahal izango ditu, interesdunak horren aurka egiten ez badu; kasu horretan, ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.

Donostiako Sustapenak, Donostiako Udalaren jabetzako elkarreragingarritasun-aplikazioaren bidez, zuzenean kontsultatuko die administrazio publiko eskudunei prozedura hau ebazteko eta ordaintzeko informazio hau:

- Udalarekiko eta Donostiako Sustapenarekiko ordainketak egunean izatearen ziurtagiriak.
- Foru Ogasunarekiko ordainketa egunean izatearen ziurtagiriak.
- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren (JEZ) historikoa
- Gizarte Segurantzarekiko ordainketan egunean egotearen ziurtagiriak.

4. ARTIKULUA. ONURADUNEK DEIALDI HONETAN PARTE HARTZEKO BETE BEHAR DITUZTEN BALDINTZAK

Onuradunek deialdian parte hartzeko bete behar dituzten baldintzak:

- a. Erakunde onuradunak Donostiako udal-mugaratean eta kalean bertan dagoen lantoki bat eduki behar du, edo egoitza soziala Donostian duen e-commerce bat, produktuak azken kontsumitzaileei saltzen dizkiena edota zerbitzuak azken erabiltzaileei ematen dizkiena.
- b. Diruz lagundutako inbertsioa Donostiako udal-mugaratean eta kalean bertan dagoen lantokian edo egoitza soziala Donostian duen online salmenta gunean erabili behar da.
- c. Onuradunak jarduera ekonomikoen gaineko zergan izena emanda egon behar du, dirulaguntza eskatzen duen jardueran, urtebetez baino gehiagoz eta etenik gabe, Oinarri hauek argitaratzeko datan.
- d. Pertsona juridikoak badira, eskaera egiten den unean enpresa txikiaren baldintza betetzen dela egiaztatu beharko da. Enpresa txikitzat hartuko da horretarako baldintzak betetzen dituen, Gipuzkoako Lurralde Historikoko sozietateen gaineko zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 13. artikulua horren inguruan arautzen duenari jarraikiz:

- I. Ustiapen ekonomikoa egitea.
- II. Aktiboa edo eragiketa bolumena, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean zehaztu bezala, HAMAR (10) milioi eurotik gorakoa ez izatea.
- III. Langileen batez besteko kopurua 50etik beherakoa izatea.
- IV. Lehen adierazitako baldintzetako bat betetzen ez duen beste enpresa batek haien gaineko % 25 edo gehiagoko partaidetzarik ez edukitzea —ez zuzenean, ez zeharka—, salbu eta beste enpresa hori arrisku-kapitaleko funts edo sozietateak direnean eta foru-arau honetako IV. kapituluaren ezarritako araubide berezia aplikatzen bazaie.

Erakundea sozietate taldekoa denean, Merkataritza Kodearen 42. artikuluaekin bat, aipatutako langile kopuruek taldea osatzen duten erakunde guztiei egingo diete erreferentzia.

e. Pertsona fisikoa denean:

- I. Jarduera ekonomiko bat irabazteko asmoz egitea.
- II. Langileen batez besteko kopuruak 50 pertsonatik beherakoa izatea.
- III. Aktiboa edo eragiketa bolumena, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean zehaztu bezala, HAMAR (10) milioi eurotik gorakoa ez izatea.

Honako hauek ezingo dira onuradun izan:

- a) Fundazioak eta elkarteak, irabazi asmodunak zein irabazteko asmorik gabekoak.

- b) Erakundeak ezin izango dira onuradun izan, Sektore Publikoko erakunde publikoen, irabazi asmorik gabeko erakundeen, ondare sozietate eta/edo profesionalen elkargoen menpe badaude edo aipatutako horiek erakunde horietan % 25etik gorako partaidetza badute (sektore publikoko erakundetzat joko dira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa Espainiako ordenamendu juridikora egiten duen Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 3. artikuluan jasota daudenak).

5. ARTIKULUA. DIRUZ LAGUNTZEKO KONTZEPTUAK ETA DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOA.

Ondoko arloetan diharduten enpresa eta saltokietan sistema eta tresna digitalak ezartzeko egindako inbertsioak eta gastuak laguntzea da dirulaguntza horien helburua:

- a. **Negoziaren komunikaziorako eta marketin digitalerako tresnak**, hala nola kanal digitalak identifikatzeko irtenbideak, erreputazioa eta sareko posizionamendua hobetzeko bideak, bezeroen esperientzia hobetzeko moduak, fidelizatzeko app-ak eta abar.
- b. **Datuak kudeatu eta aztertzeako tresnak eta adimen analitikoaren garapena**, hala nola online aztertzeako eta estatistikak egiteko sistemak eta tresnak, datuak, trafikoa, erabiltzaile digitalen jokabidea eta abarrak neurtu, bildu eta aztertzeako.
- c. **Kudeaketa-tresnak eta -sistemak**, hala nola salmenta prozesuen kudeaketa eta planifikazioa egiteko sistemak, bezeroekin, hornitzaileekin harremanetan egoteko sistemak, CRM, ERP eta abarreko sistemak.

Oro har, dirulaguntzaren zenbatekoa BI MILA EURO (2.000 €) izango da.

Digital Dendak 2021 eta 2022, Ekonomia Zirkularra eta Jasangarritasuna 2021 eta 2022 eta/edo SmartKalea programetan parte hartzen duten eta/edo DSS Market Plaza (www.donostiamarket.eus) ekimenari atxikita dauden enpresen kasuan (atxikitze eskaera dirulaguntzaren eskaera egin ondorengo 21 eguneko epean aurkeztu duten eta dirulaguntzaren ebazpena ematen den egunean eskubide osoko altan dauden enpresak barne), dirulaguntzaren zenbatekoa HIRU MILA EURO (3.000 €) izango da.

Dirulaguntza a), b) eta c) apartatuetan azaldutako arloetan egindako inbertsio eta gastuen %80 ordaintzeko izango da.

Dirulaguntzaren zenbatekoa % 10 igoko da honako egoera hauetako batean: Onuraduna izango den pertsona fisiko edo juridikoaren lokal komertziala edo lantokia hiriaren ekialdean egotea eta hori eskabide orrian adieraztea. Hiriaren ekialdetzat joko dira honako auzo hauetan kokatutako enpresa komertzialak: Altza, Intxaurrondo, Miracruz-Bidebieta, Egia, Loyola eta Martutene.

Diruz lagundutako jarduerak egiteko epea 2022ko urtarrilaren 1etik 2022ko abenduaren 31ra bitartekoa izango da.

Donostiako Sustapenak dirulaguntza bakar bat emango du pertsona onuradun bakoitzeko.

Oro har, zalantzarik gabe diruz laguntzen den jarduerari lotuta dauden eta Oinarri hauetan ezarritako epean egin diren gastuak onartuko dira diruz laguntzeko moduko gastu gisa.

Ez dira diruz laguntzeko modukoak izango honako entitate hauek eskainitako zerbitzuak:

- Erakunde publikoak.
- Irabazteko asmorik gabeko erakundeak.

Entitateak ezingo dira onuradun izan, Sektore Publikoko erakundeen (hau da, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa Espainiako ordenamendu juridikora egiten duen Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 3. artikuluan jasota daudenen), irabazi asmorik gabeko fundazio eta elkarteen, ondare sozietate eta/edo profesionalen elkargoen menpe badaude, edo aipatutakoek entitate horietan % 25etik gorako partaidetza badute.

150 eurotik beherako fakturak edo gastuak (zergak kanpo) ez dira onartuko. Inola ere ez dira diruz lagun daitezkeen gastutzat hartuko balio erantsiaren gaineko zerga (BEZ) eta gainerako zeharkako zergak.

Txartelez eta banku transferentziaz egindako ordainketen agiriak eta helbideratze ordainagiriak baino ez dira onartuko. Ez dira onartuko eskudirutan eta/edo Bizum bidez egindako ordainketak. Aipatu ordainagiriak honako informazio hau jasoko dute gutxienez: egindako eragiketaren onuraduna, kontzeptua, zenbatekoa eta data); ez dira onartuko banku mugimenduen zerrendak.

6. ARTIKULUA. BESTE LAGUNTZA BATZUEKIKO BATERAGARRITASUNA

Dirulaguntza hauek bateragarriak izango dira helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, horiek ematen dituen administrazioa, erakunde publiko zein pribatua, Estatuko, Europar Batasuneko zein nazioartekoa edozein dela ere, eskura daitezkeen beste dirulaguntzak arautzen dituzten araudiek horren inguruan ezar dezaketena galarazi gabe, baldin eta honako baldintza hauek betetzen badira:

Oinarri hauetan araututako dirulaguntzek Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 Erregelamenduan (EB) ezarritako *de minimis* arauak beteko dituzte. Aipatutako araudia Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Itunaren 107. eta 108. artikulua *de minimis* laguntzei aplikatzeari buruzkoa da, eta 2013ko abenduaren 24ko Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratu zen.

Jasotako dirulaguntzaren zenbatekoak, Oinarri hauetan adierazitakoarekin bat, inoiz ez du diruz lagundutako jardueraren kostua gaindituko, ez banaka, ezta beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabideekin batera ere.

7. ARTIKULUA. ESKAERAK ETA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Eskaerak aurkezteko epea oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO) argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta baliabide ekonomikoak agortu arte iraungo du, Oinarri hauen 2. artikulua araberan (kasu horretan, baliabideak agortu izanaren berri Donostiako Sustapenaren webgunean emango da) edo, bestela, deialdia itxi arte, hots, **2022ko abenduaren 31ra arte**.

Eskaerak bide telematikoz aurkeztuko dira, Donostiako Sustapenaren webgunearen bidez (www.fomentosansebastian.eus). Eskaera bide telematikoz egin ahal izateko, Sustapenaren online zerbitzuen atalean alta egin beharko da; webgunetik sar daiteke zerbitzuen atalera. Bertan eskuragai dago eskuliburu bat, atarian alta egiteko eta dirulaguntzen eskariak aurkezteko gida moduan.

Edozein informazio eskatzeko edo galdera egiteko, 943482800 telefonoa edo fomentoss@donostia.eus helbide elektronikoa erabil daiteke, gaian "Ayudas Digital Dend@k 2022" adierazita. Jendearentzako ordutegia Donostiako Sustapenaren webgunean adierazitakoa izango da.

Salbuespenezko kasuetan, behar bezala arrazoituz gero, eskaera Sustapenaren atariaren bidez aurkeztu ezin bada, Sustapenak baimena eman ondoren, eskaera aurkezteko beste bide bat gaituko da.

Dagokion eskabide orriari Oinarrietan eskatzen den administrazio agiri guztiak erantsiko zaizkio.

Eranskin osoak bete beharko dira eta behar bezala sinatuko dira orrialde guztietan. Sinadura behar duen eransteko dokumentazioa digitalki sinatu beharko da.

Dirulaguntza eskatzeko interesa duten enpresek edo entitateek honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

ERANSKINAK: osorik beteta.

- 1) Eskaeraren eranskina. "DendaTICs" edo "Digital dendak" programako laguntza baten onuradun izanez gero, laguntza eskatzeko urtea, proiektuaren izena, egindako jarduerak, jasotako diru zenbatekoa eta zerbitzua eman zuen enpresaren izen soziala adierazi beharko dira.

Proiektuaren eta diruz lagundu nahi diren jardueren deskripzio-memoria, gutxienez, dirulaguntzari lotutako proiektuaren xedea aipatuta; memoriak jardueraren aurrekontu xehatua jasoko du eta azalduko du proiektu horrek nola hobetzen duen dirulaguntzaren eskatzaile den negozioaren lehiakortasuna eta nola sustatzen duen bere eraldaketa digitala.

Gastuen xehetasuna: finantzatu nahi diren gastuei lotutako fakturen zerrenda jasoko du gutxienez.

- 2) Bankuko datuen eranskina edo banku agiri baliokidea.

ADMINISTRAZIOKO DOKUMENTAZIOA:

- 3) Pertsona fisikoa bada, eskatzailearen NAN agiriaren kopia.
- 4) Pertsona juridikoa bada, eskatzailearen IFK agiriaren kopia eta, hala badagokio, ahalordedunaren NAN agiria, ordezkari itzulia ahalordeekin batera.
- 5) Aurkeztutako gastuak behar bezala egiaztatzen dituzten faktura, ordainagiri, nomina eta kontabilitate dokumentuen kopia.
- 6) Gastu horiek ordaindu izana egiaztatzen duten agirien kopia.

Onuradunak bere gain hartzen du egindako erantzukizunpeko adierazpenen eta aurkezten dituen beste dokumentu guztien egiazkotasunaren erantzukizun osoa.

Interesdunek Donostiako Sustapenean 2018. urteaz geroztiko deialdiko dirulaguntzetako bat eskatu badute, ez dute berriro atal honetan eskatzen den dokumentazioa aurkeztu beharko, baldin eta indarrean jarraitzen badu eta datuak aldatu ez badira.

Diru-laguntza eskatzeko unean eta ordainketak egiteko unean Udal Zerga Bilketaren, Foru Ogasunaren eta/edo Gizarte Segurantzaren bidez egunean ez dauden erakundeek egunean dutela egiaztatatu beharko dute.

8. ARTIKULUA. ESKAERETAKO AKATSAK ZUZENTZEA

Donostiako Sustapenak dokumentazio osoa aztertu ondoren bete gabe dagoela edo agiriren bat falta dela egiaztatzen bada, esanbidez adieraziko da zer falta den eta errekerimendua egingo zaio eskatzaileari gehienez ere hamar egun balioduneko epean gabeziak zuzendu edo aurkeztu ez diren nahitaezko dokumentuak aurkez dituzan; halaber, jakinaraziko zaio horrela egiten ez badu, eskaera baztertuko dela, izapide gehiagorik gabe eta, ondorioz, ezezko ebazpena emango dela. Dokumentazio administratiboa zein dirulaguntza mota bakoitzaren berriazko dokumentazioa zuzendu ahal izango da. Gainera, komeni dela jotzen duenean, Donostiako Sustapenak beretzat gordetzen du pertsona edo erakunde eskatzaileak aurkeztutako dokumentuetako bati edo informazioari buruz egoki deritzen azalpen guztiak eskatzeko eskubidea.

Zuzenketak onuradunak harremanetarako e-mail gisa adierazi duen helbide elektronikoaren bidez helaraziko dira. (JAKINARAZPENAK EGITEKO HELBIDE ELEKTRONIKOA). Edozein modutan: jakinarazpenak web aplikazioan ere egongo dira eskuragai eskaera egin duen pertsona edo erakundearen espedientean.

Akatsak zuzentzeko eskatutako dokumentazioa aurkezteko, hasierako eskaera egiteko erabili zen bide bera erabiliko da. Posta elektroniko bidez bidalitako zuzenketak ez dira onartuko.

Dirulaguntzak emateko edo ukatzeko, Donostiako Sustapenak esanbidezko ebazpen arrazoitua emango du, Oinarri hauetan ezarritako betekizun eta baldintza guzti-guztiak betetzen diren ala ez kontuan hartuta.

9. ARTIKULUA. LAGUNTZA IZAPIDETZEA ETA EBAZTEA

Eskaerak norgehiagokarik gabeko konkurrentzia bidez ebatziko dira, hau da, erregistroan duten hurrenkerari jarraikiz, dirulaguntza bakoitzari esleitutako baliabide ekonomikoak agortu arte edo deialdia itxi arte, hots, 2022ko abenduaren 31ra arte.

Ordaindutako zenbatekoa inoiz ez da Oinarri hauen 5. eta 6. artikuluetan ezarritakoa betez aurkeztu eta justifikatu diren gastuen zenbatekoa baino handiagoa izango. Dirulaguntza epe bakarrean ordainduko da, eskaera osatu eta onartu ondoren.

Eskatutako dirulaguntzari buruzko ebazpena emateko epea sei (6) hilabete baliodunekoa izango da, eskaera erregistratzen den egunetik hasita, administrazio dokumentazioa zuzentzeko aldiak epe horren barruan kontuan izan gabe. Dirulaguntza emateko ebazpena ezarritako epean ematen ez bada, ez du esan nahi dirulaguntza eman denik.

Eskaera ebazte aldera, derrigorrean aurkeztu beharreko dokumentazioa aztertuko du Donostiako Sustapenak. Eskatu gabe aurkezten den bestelako dokumentazio guztia ez da aztertu beharko dirulaguntzari buruzko ebazpena emateko.

Gehikuntzarik egonez gero, eskatzaileak jaso nahi dituen gehikuntzak aipatu beharko ditu eta dagokion egoera egiaztatzeko behar den dokumentazio osoa erantsiko du. Donostiako Sustapenak erabakiko du eskatzaileak eskatutako gehikuntzak jasotzeko baldintzak betetzen dituen ala ez, eta ez da behartuta egongo eskaerari erantsitako agirian adierazi ez diren gehikuntzak aintzat hartuz.

Laguntza emateko edo ukatzeko, Donostiako Sustapenak esanbidezko ebazpen arrazoitua emango du, Oinarri hauetan ezarritako betekizun eta baldintza guzti-guztiak betetzen diren ala ez kontuan hartuta.

Ebazpenak helbide elektronikoz jakinaraziko zaizkie eskatzaileei, eskabide orrian "Jakinarazpenetarako helbide elektronikoa" apartatuan adierazitako helbidearen bidez; web aplikazioan ere egongo dira eskuragai, erakunde edo pertsona eskatzaile bakoitzaren espedientean; horrez gain, onuradunen zerrenda argitaratuko da.

Eskatzailea ebazpenarekin ados ez badago, alegazioak aurkeztu ahal izango ditu gehienez ere hilabeteko epean –ebazpena ematen den egunetik aurrera–; Donostiako Sustapenak erabakitakoa bete beharko da, eta, hala beharrez gero, bi aldeak Donostiako epaitegien eta auzitegien jurisdikzioaren mende geratuko dira.

10. ARTIKULUA. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Dirulaguntza horien onuradunek Dirulaguntzen Lege Orokorraren 14. artikuluan jasotako betebeharrak bete beharko dituzte. Ondorio horietarako, aipatu legea bete behar dela esanbidez adierazten da, besteak beste eta bakarrak izan gabe, honako betebeharrak aipatuz:

- a) Laguntza diruz lagundutako kontzeptuetara bideratzea.
- b) Eskatzen den dokumentazioa ezarritako modu eta epean aurkeztea.

- c) Jasotako dirulaguntzak zertan erabili diren egiaztatzen duten dokumentuak gordetzea, horiek guztiak egiaztatu eta/edo kontrolatu baitaitezke; nolanahi ere, aplikatu beharreko araudian ezarritako epean gordeko dira.
- d) Laguntzari lotutako jardueren gastu eta diru-sarrera guztiak kontabilizatzea.
- e) Kontabilitate liburuak behar bezala eramatea, horretara behartuta egonez gero.
- f) Egunean izatea zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.
- g) Laguntzaren xede den jarduera gauzatzeko behar diren lizentzia eta baimen guztiak izatea.
- h) Laguntzak emateko kontuan hartutako edozein inguruabar –subjektibo zein objektibo– aldatu baldin bada, Donostia Sustapenari horren berri ematea.
- i) Emandako laguntzei dagokienez, Donostia Sustapenak bere eginkizunak betez eskatzen duen informazio guztia ematea.
- j) Helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuk jasoz gero, Donostia Sustapenari horren berri ematea.
- k) Donostia Sustapenari laguntzea, hala badagokio, egin ditzakeen finantza kontroleko eta egiaztapeneko jarduketetan, eta bere esku jartzea eskatzen duen informazio eta dokumentazio guztia.
- l) Oinarri hauetako 3. eta 4. artikuluetan adierazitako baldintzak betetzea.
- m) Donostiako Sustapenari baimena ematea bere enpresen direktorio digitaletan honako hauek argitaratzeko: harremanetarako pertsonaren datuak, jarduera, izen komertziala, logoa, marka eta beste edozein bereizgarri, onuradunak trafiko ekonomikoan erabiltzen duena. Ondorio horretarako, onuradunak elementu horiek adierazitako helburuekin bakarrik erabiltzeko eta eskusibotasunik gabe ustiatzeko lizentzia bat emango dio Donostiako Sustapenari eta Sustapenak era baketsuan erabiltzea bermatuko du. Hortaz, Oinarri hauetan esanbidez ezarritakoa ez den beste edozein erabilera espresuki baimendu beharko da.
- n) Material, euskarri eta espazio guztietan Donostiako Udalaren, Donostiako Sustapenaren eta DSS2022 Sustapen Planaren logoak jartzea.
- o) EAEko hizkuntza ofizialen erabilera bermatzea (euskarari lehentasuna emanez) komunikazio euskarrietan (webgunea, sare sozialak, mailinga, megafonia eta abar), sustapen eta hedapen materialetan, antolatutako jardunaldi eta ekitaldietan eta abarretan.

Onuradunek Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuaren laguntza eskatu ahal izango dute testuak itzultzeko eta horiek zuzentzeko, (hilean gehienez ere 1.000 karaktere itzultzeko eta 9.000 karaktere zuzentzeko), baldin eta zerbitzuaren baldintzak eta ezaugarriak betetzen badira (<http://www.donostiaeuskaraz.eus/euskaraz/dirulaguntzak/lang/es>)

11. ARTIKULUA. DIRULAGUNTZAK ITZULTZEA

Onuradunak jasotako dirulaguntza –gehi diruaren legezko interesa, zenbatekoak ordaintzen diren unetik sortutakoa– itzuli beharko du, honako kasu hauetako edozein gertatuz gero:

- Oinarri hauetan aurreikusitako betebeharrak modu larrian eta behin eta berriz ez betetzea. Ez-betetze larritzat edo/eta behin eta berriz errepikatutzat hartuko da Oinarri hauetan ezarritako betebeharrak bat behin baino gehiagotan ez betetzea; aurkeztutako datu, ziurtagiri, txosten eta/edo agirietako baten faltsutasuna edo faltsutzea; eta/edo Oinarri hauen esparruan jasotako dirulaguntza osoa edo horren zati bat aurreikusitakoak ez diren helburuetara bideratzea.
- Dirulaguntzaren xedea Oinarri hauetan aurreikusitako moduan justifikatzeko betebeharra urratzea, eta behar bezala ez justifikatzea.
- Onuradunaren jarduerari buruz egin daitezkeen egiaztapen eta ikuskapenei kontra egitea, aitzakiak eta eragozpenak jartzea edo uko egitea, baita kontabilitate, erregistro edo dokumentu betebeharrak ez betetzea ere, baldin eta horren ondorioz ezin bada egiaztatu jasotako ekarpenei emandako erabilera, finantzatutako jardueren errealitatea eta erregularatasuna, edo edozein administraziok edo erakundek helburu bererako emandako dirulaguntzak, laguntzak, diru sarrerak edo baliabideak eskuratzea, izan horiek publikoak edo pribatuak, estatukoak, Europar Batasunekoak edo nazioarteko erakundeetakoak.
- Jarduerak gehiegizko finantzaketa jaso badu, gainfinantzatutako zenbatekoan.

Aurrekoa kontuan izanik, dirulaguntza hauen onuradun izateko betekizunak une guztietan bete eta mantendu beharko dira. Bestela: Donostiako Sustapenak dirulaguntzak itzultzeko eskatu ahal izango du aurreko apartatuetan zehaztutako baldintzetan. Era berean, ez-betetze larrienen kasuetan, hala nola datuen faltsutasuna edo jasotako dirulaguntza –osorik edo zati batean– beste helburu baterako erabiltzea, Donostiako Sustapena gaitu egingo da emandako dirulaguntza ezeztatzea erabakitzeke eta, hala badagokio, jasotako zenbateko guztiak itzultzea errekeritzeko, jasotako zenbatekoaren halako bostaren baliokidea den zenbateko bat ordaintzea hertsiki eskatzeaz gain.

Dirulaguntza itzuli beharko da, eta Donostia Sustapena onuradunari jakinaraziko dio Oinarriotan ezarritako arrazoiren bat gertatzen dela, jarraian deskribatutako baldintzetan.

Itzulketa egutegiko laurogeita hamar eguneko epean egin beharko da, Donostia Sustapena onuradunari artikulu honetan aurreikusitako itzulketa arrazoiren bat dagoela burofax bidez jakinarazten dionetik zenbatzen hasita.

Era berean, eta aurreko apartatuetan ezarritakoaz gain, Donostiako Sustapena SAK beretzat gordetzen du Oinarri hauetan ezarritako betebeharrak bat utzikeriagatik bete ez duten edo beren jokabidearen ondorioz fede onaren oinarritzko arauak urratu dituzten pertsona fisiko edo juridikoei Sustapenak eskaintzen dituen beste dirulaguntza edo onura batzuk eskuratzeko aukera BI (2) URTEZ eragozteko eskubidea.

12. ARTIKULUA. DATU PERTSONALAK BABESTEIA

Datuen babeseke indarreko araudian xedatutakoari jarraikiz, Oinarri hauetan araututako dirulaguntzak eskatzen dituztenei jakinarazten zaie eskabide orriaren bidez ematen dituzten datu pertsonalak, baita beste agiri guztiak ere, dirulaguntza izapidetu eta/edo kudeatu bitartean, Donostiako Udalak tratamendurako gorde eta erabiliko dituela, Tratamenduaren

Arduradun moduan, eta Donostiako Sustapenak kudeatuko dituela, tratamenduaren eragile moduan. Tratamenduaren helburua eskabidea kudeatzea eta laguntza horiek izapidetzea izango da.

Tratamenduaren zilegitasun oinarria Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1.e) artikulua da, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa (DBEO). Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak egikaritzeko egindako misio bat betetzeko: 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa; 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriari buruzkoa; eta 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, dirulaguntzei buruzkoa.

Oinarri hauetan edo eskabide inprimakietan hala adierazten bada, nahitaezkoa izango da datu pertsonalei buruz eskatzen den informazioa ematea, eta datu akastunak emateak edo datuak ez hornitzeak eragotzi egingo du eskabidea kudeatzea.

Datuak bildu ziren helburua betetzeko behar den denbora guztian gordeko dira, bai eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator litezkeen erantzukizunak zehazteko beharrezko izan litekeen denbora guztian ere.

Oinarri hauetan araututako dirulaguntzen onuradunek emandako datu pertsonalak Donostiako Sustapenarekin lan egiten edo kofinantzatzen duten Espainiako edo atzerriko erakundeetara igaro daitezke, beharrezkoa denean, eta soilik dirulaguntza emateko gestioak egiteko.

Era berean, jakinarazten da laguntzak emateak berekin ekarriko duela onuradunaren identifikazio datuak jakinaraztea edo lagatzea, eta, horretarako, datu horiek, emandako laguntzaren zenbatekoarekin batera, Donostia Sustapenaren webgunean argitaratuko direla, baita Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean ere –azken kasu horretan, emandako laguntza 3.000 eurotik gorakoa denean bakarrik edo, zenbatekoa edozein izanda ere, eskatzeko modukoa denean–.

Eragindako pertsonak datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea baliatu ahal izango dute hala dagokionean, baita araudi honetan aurreikusitako bestelako eskubideak ere. Horretarako, Donostiako Udaleko Udalinfo zerbitzuarekin jarri beharko da harremanetan: Easo kalea 41, 20006 Donostia.

Herritarrak bere eskubideak baliatzeko garaian behar bezalako arreta jaso ez badu, erreklamazio bat aurkeztu ahal izango du Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. Helbidea: Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea 71, 3. solairua, 01008 Vitoria-Gasteiz. Hala ere, lehen auzialdian, datuak babesteko Donostiako ordezkariari aurkeztu ahalko dio erreklamazioa: dbo@donostia.eus.

Ondorio horietarako, adierazten da eskatzaileak, eskaera aurkezten duenean, berariaz onartzen dituela aurreko paragrafoetan adierazitakoaren ondoriozko komunikazioak edo datu lagapenak.

13. ARTIKULUA. ARAUBIDE JURIDIKOA

Ematen diren dirulaguntzek oinarri hauetan jasotako arauak beteko dituzte, eta, modu osagarrian, Dirulaguntzen Lege Orokorrean eta hura garatzeko erregelamenduan jasotakoaren arabera (erregelamendu hori uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartu zen), nahiz eta Dirulaguntzen Lege Orokorrean bildutako kudeaketa irizpideei eta lege horretako 20. artikulua bildutako informazio printzipioei dagokienez bakarrik izan –hori guztia lege horren 3.2 artikulua bigarren paragrafoa betez, hark ezartzen baitu aplikazio hori–.

Bestela, Dirulaguntzen Lege Orokorra eta hura garatzeko erregelamendua Oinarriotan lege testu horien berariazko aipamena egiten denean bakarrik aplikatu beharko dira.

14. ARTIKULUA. AZKEN XEDAPENA

Indarrean jartzea eta onartzea.

Oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarriko dira.

Eskaera aurkezteak oinarriok erabat onartzen direla esan nahi du.

Erantzukizunetik salbustea.

Onuraduna izango da laguntzaren xede den jarduera egin aurreko edo ondorengo jarduketan ondorioz sortzen diren kalte pertsonal eta/edo materialen erantzule bakarra, eta Donostia Sustapenak ez du inolako erantzukizunik izango kontzeptu horiengatik.

Donostia, 2022ko uztailaren 12a

Marisol Garmendia Beloqui

Ekologia, Osasun Publikoko, Garapen Ekonomikoko eta Enpleguko zinegotzi ordezkaria